

# Autoebaluazioarako proba

## Soldatak 2

### Jarraibideak

- Autoebaluazio proba egiten hasteko sakatu “Hasi” botoia.
- Erantzun atalei.
- Autoebaluazio proba amaitzeko sakatu “Bukatu” botoia.
- Erantzun zuzenen kopurua “Score” gelaxka sakatuz agertuko da.
- Atal guztiek puntu bana balio dute.
- Sakatu “Correct” botoia erantzun zuzenak ikusteko.
- Proba hurrengo orrialdean hasten da.
- Proba egiteko denbora: 15 minutu.

## Adierazburua

Ireki ezazu soldatak.gdt datu-fitxategia soldatak esperientziaren, arrazaren, generoaren, egoera zibilaren, mendeko kideen eta bizitokiaren funtzioan analizatzeko.

### Erregresio lineal orokorreko ereduak

1. Mendeko kideen aldagaiari dagokion koefizientearen estimazioa hau da:  
(a) -0,303139    (b) -2,28355    (c) -0,136405    (d) -1,148
2. Zein da esperientzia gabeko emakume ezkondu zuri baten soldata estimatua hirian bizi bada hiru seme-alabekin?  
(a) 5,37331    (b) 5,181775    (c) 4,265982    (d) 4,81790
3. Zein da esperientzia gabeko emakume zuri baten soldata estimatua ezkondu gabea, seme-alabik gabekoa eta hirian bizi bada?  
(a) 4,81790    (b) 5,181775    (c) 4,265982    (d) 4,21014

4. Esperientzia aldagaia esanguratsua da? ( $\alpha = \% 5$ )  
(a) Bai (b) Ez
5. Arraza aldagaia esanguratsua da? ( $\alpha = \% 5$ )  
(a) Bai (b) Ez
6. Mendeko kideak aldagaia esanguratsua da? ( $\alpha = \% 5$ )  
(a) Bai (b) Ez
7. Esperientzia, arraza eta mendeko kideak aldagaiak batera esanguratsuk dira? ( $\alpha = \% 5$ )  
(a) Bai (b) Ez
8. Aurreko murrizketak barneratzen dituen eredu murriztuaren mugatze-koefizientea hau da:  
(a) 0,190897 (b) 0,189750 (c) 0,193794 (d) 0,186687

**9. Eredu murriztuan** oinarrituz:

(a) Zein da hiritik kanpo bizi den ezkondu gabeko gizon baten soldata estimatua?

- (a) 4,88702    (b) 6,37498    (c) 8,0407    (d) 6,55274

(b) Zein da lagineko bosgarren banakoari dagokion soldata estimatua?

- (a) 6,552737    (b) 8,040696    (c) 6,374976    (d) 8,224996

(c) Zein da lagineko bosgarren behaketari dagokion hondarra?

- (a) 0    (b) -1,07498    (c) 1,48796    (d) 3,74983

(d) Aldagai azaltzaileen baterako esanguratasuna kontrastatzeko estatistikoaren balioa hau da:

(a) 42,56432    (b) 39,93985    (c) 30,9654    (d) 37,04983

(e) Aldagai azaltzaileak batera nabariak dira? ( $\alpha = \% 5$ )

(a) Bai

(b) Ez